

Eskerrik asko, andre eta jaunok:

Akademosen baratzeko zuen artera bilduz ohoratu gura izan gaituzue. Lotsa pixka bat ematen dit neuri: zerbait ezakademikoagorik ni baino, izaeraz, eta idazkeraz ere,ez dago. Euskararen maisu bat ez naiz, badakit/dakigu; baina hizkuntzaren esklabo ere ez nuen izan nahi. Euskaraz egin nahi nuen nire lana, horixe da dena. Eta lan hori da ohoratu duzuen, hala dio jakinarazpenak.

Zorionez nik beti lagunak laguntzarekin lan egin ahal izan dut. Horregatik, onar zaidazue eskerrona agertzea gaur nire euskararen zuzentzaileei, Jose Antonio Adurizi eta Xabier Mendigureni bereziki; eta nire idazlanak publikoarengana eramaten dituzten aldizkari, argitaletxe, zabaltzaile, saltzaileei ere. Horiek denak gabe ez legoke nire lanik. Milesker guztiei. Eta aurren-aurrenik, esan bezala, Euskaltzaindiari eskerrik asko berriz ere, euskaltzainburu Andres Urrutia jaunari eta euskaltzain guztioi.

Joxe Azurmendi